2. Que en la investigación tenga en cuenta, asimismo, los pronunciamientos habidos en la jurisdicción penal con relación a la denuncia por injurias formulada contra el periodista, en los términos expresados en la Recomendación General del Ararteko 7/2011, de 28 de octubre (apartado II.1.1).
3. Que analice la denuncia formulada contra el periodista por un delito de injurias y las denuncias administrativas que los agentes a los que se refiere la





queja formularon contra la joven a la que aludía la información periodística para verificar si los hechos que constan en dichos documentos se corresponden con la realidad de lo sucedido, teniendo en cuenta lo que expresa a este respecto la Recomendación General del Ararteko 7/2011, de 28 de octubre (apartado II.2.3).

4. Que aclare las dudas que los promotores de la queja han suscitado sobre la corrección de la actuación policial.
5. Que establezca los mecanismos necesarios para garantizar el cumplimiento de la Recomendación General del Ararteko 7/2011, de 28 de octubre, en los aspectos indicados, y de las demás pautas de actuación a que se ha hecho referencia en las consideraciones.



Arartekoaren 2020R-566-19 Ebazpena, 2020ko ekainaren 10ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendatzen zaio Ertzaintzaren jokabideari buruzko kexari erakunde honen gomendioekin bat egiten duen tratamendua eman diezaiola eta jokabide horri buruz sustatzaileek agertutako zalantzak argitu ditzala.

Aurrekariak

1. Argia astekariaren ordezkaritza bat Arartekoaren aurrean kexatu zen Ertzaintzako bi agentek 2018ko uztailaren 7an salaketa jarri ziotelako argitalpen horretako kazetari bati, ustez irain delitu bat egotzita, sare sozialetan zabaldu zuen informazioari lotuta; hain zuzen ere, aurreko maiatzaren 21ean Donostian egindako polizia-jarduketa bati buruzkoa da informazioa, gazte erakunde sozial batek egun horretarako deitutako prentsurrekoarekin lotuta. "Bizitza Da Handiena" mobilizazio sozialen asteko protesta-ekitaldien barruan antolatu zen, hiriaren turistikazioa salatzeko (atestatu-zenbakia: 590A1803224).

Kexaren arabera, agenteek salatu zuten poliziaren jarduna egin zenean gazte bat identifikatzea eragin zuten arrazoiei buruz kazetariak argitaratutako informazioa faltsua dela.

Adierazitakoaren arabera, kazetariak esan zuen gazte hori identifikatu zutela ertzainei euskaraz hitz egiteko eskubidea erabili nahi zuelako, eta ertzainek, bien bitartean, esan zuten identifikatzeko arrazoia izan zela gazte hori prentsurreko baten antolatzaileak identifikatzeko lana oztopatzen ari zela.

Kexagileen arabera, ertzainen salaketak ez zuen justifikaziorik eta salatu zuten kazetariaren jarduna informazio-askatasunerako konstituziozko eskubideak babesten zuen (Konstituzioaren 20. artikulua).

Adierazi dutenez, ertzainek kazetaritza-informazioan aipatutako gaztea identifikatu zutenean, prentsurrekoaren antolatzaileak dagoeneko identifikatuta zeuden, eta, haren ustez, horrek zalantzan jartzen du gaztearen identifikazioa justifikatzeko agenteek salaketan emandako azalpenen sinesgarritasuna.

Kazetariak egindako bideo-grabazioak erakusten duenez, identifikazioa gaztearekin hizkuntzaren gainean izandako gorabehera baten ondoren egin zen eta ertzainekin euskaraz hitz egiteko duen eskubidea baliarazten saiatu zenean.



Agenteek irainengatik kazetariaren aurka jarritako salaketa aipatu zen kexan, poliziaren jarduketaz egindako grabazioarekin batera, bai eta, grabazioan oinarrituz, gaztearen hizkuntza-eskubideak urratu izanaren berri ematearekin batera ere.

Adierazi da, halaber, grabazioaren ondorioz, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak ere kexa bat jarri zuela Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailean, eta izapideetan sailak onartu zuen ez zirela eskubide horiek errespetatu.

2. Honako datu hauek jaso dira kexagileek kexan aurkeztutako dokumentazioan:

- Hasiera batean kazetariaren informazioan aipatutako gaztearen identifikazioa esku zuen ertzainak agerraldia egin zuen salatutako irainen ustezko delituagatik bideratutako atestatuan, eta adierazi zuen bere adierazpena salaketa gisa hartu beharra zegoela. 2018ko uztailaren 7an esan zuen hori, ustezko delitua gertatu zenetik hilabete baino gehiago igaro ondoren.
- Salaketan aipatu ziren, bai agente salatzailea, bai taldeko lankidea.
- Agente salatzaileak agerraldian adierazi zuen identifikazioa ez zela euskaraz hitz egiteagatik egin, baita ere kontzentrazioaren arduradunak eta polizia-lana oztopatu zuen emakumea baino ez zirela identifikatu.
- Atestatua, dokumentuan jasotakoaren arabera, urte hartako irailaren 25ean ireki zen, egitateak gertatu eta ia lau hilabete geroago, eta bi hilabete geroago atestatuan bertan salatzaileak agerraldia egiteko jasotako datatik.

Atestatua Guardiako Epaitegira bidali zen urriaren 20an, eta hura ireki zen egunetik egun horretara arte ustez iraingarria zen informazioa jaso zen, bai eta Facebooken eta Twitterren agertzen ziren bideo-grabazioetarako estekak ere, eta irudiak zituen CD bat ere bai. Dokumentu horretan ez zen agertzen eginbiderik egin zenik, kazetariaren identifikazioa izan ezik, ireki zen egun horretan bertan egin baitzen.

3. Kexagileek aurkezu zuten polizia-jarduketaren bideo-grabazioetan erakunde honek egitateen sekuentzia hau ikusi ahal izan zuen kexan planteatutako kontu batzuei buruz:

Agenteek polizia-lerro bat osatu zuten ustez prentsurrekoan esku hartu zuten pertsonen inguruan, eta bertan zegoen antolatzairen gisa identifikatu zuten pertsona.

- Ustez polizia-lana oztopatu zuen gaztea polizia-lerrotik kanpo zegoen. Irudiek ez dute erakusten prentsurrekoaren antolatzailaren identifikazioa oztopatu zuenik, ezta agenteen lana oztopatu zuenik ere.
- Ertzainak neska identifikatzeko eskatu aurretik, neskak berak esaten dio «*gutxietsi gabe ere esan daiteke berdina*». Ertzainak erantzuten dio: «*¿cuál?*». Gazteak, orduan, esaten dio: «*sin faltar, que puedes decir lo mismo sin faltar*», eta ertzainak erantzuten dio: «*no estoy faltando*». «*Sí has faltado*» dioten ahotsak entzuten dira, bai eta gazteari «*nik ulertzen zaitut*» diotenak ere.
- Ertzainak, jarrian, NANa eskatu dio gazteari, egiteko arrazoien berri eman gabe. Gazteak «*zergatik*» galdu du, baina ertzainak ez dio erantzun eta berriz eskatu dio NANa. Gazteak berri: «*baina esan zergatik*». Ertzainak erantzuten dio: «*tú estás hablando conmigo, quiero saber con quién estoy hablando*». Gazteak erantzuten dio: «*yo te estoy entendiendo*». Ertzainak esaten dio: «*ah, ¿sabes hablar castellano?*». Gazteak esan dio NANa emango diola, eta, aldi berean, eskuan duen diru-zorro bat ireki eta dokumentua ateratzeko keinua egin du.
- Han dauden hainbat gaztek protestaka: «*euskeraz hitz egiteagatik DNla?*», «*para saber con quién está hablando no tenéis que pedir el DNI*». Bestalde, antzeko beste adierazpen batzuk egiten dituzte.
- Gazteak esaten dio: «*emango det, baina ea norbaitek euskeraz...*».
- Orduan, ustezko antolatzaila prentsurrekora hurbildu da, eta esan du: «*que tienes mi DNI y ya está...*».
- Jarraian, beste agente bat joan da ustez identifikatzeari uko egin dion gaztearengana, esanez: «...*te llevamos a base y te identificamos en base, lo que tú quieras, si yo no tengo ningún problema. O te identifico aquí o te identifico en base, lo que tú quieras, tú decides*».
- Gazteak erantzun dio: «*bai, nik emango det, baina...*», eta ertzainak erantzun du: «*te lo he pedido por primera vez, te lo voy a pedir tres veces ¿vale?, primera vez*». Gazteak dio: «*hiritar bezala eskatzen det euskara euskatzeko eta emango det*», eta gehitu du: «*ez daki inork euskara?*».



- Une horretan, aurreko biekin batera dagoen hirugarren agente batek euskaraz hitz egiten dio gazteari, eta hark NANa ematen dio, eta ertzainak lehen agenteari ematen dio. Bigarren ertzainak esaten dio: «*me estás entendiendo perfectamente*». Gazteak dio: «*ez da ulertze-kontua ...errespetu kontua da*», eta gehitu du: «*eta eskubide-kontua ere bai*».
 - Bideo-grabazioek ez dituzte jaso gazteak ertzainari «*gutxietsi gabe ere esan daiteke berdina*» esan baino lehenagoko gertaerak, ezta iruzkin hori eragin zutenak ere.
4. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarengana jo zuen, jarduna ikertu zezan, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean ("Berme sistema poliziaren jarduketa eta praktikak") ezarritako jarraibideei jarraikiz.
- Eskatu zion, halaber, polizia-jarduketa azter zezala gomendioan aipatutako ikuspegitik, atestatuen eta administrazio-salaketen edukia kontrolatzeari dagokionez, horiek eragin dituzten egitateei dagokienez (II.2.3 apartatua), eta honako informazio hau eman ziezaioa:
- a) Barne-ikerketaren edukia, horren baitan egindako jarduketak eta ateratako ondorioak.
 - b) Poliziaren jardunaren inguruan egin den analisia, dagoeneko aipatu dugun gomendio orokorraren II.2.3. apartatuan adierazitako ikuspuntutik abiatuta. Halaber, eta hala badagokio, atal horretan adierazi genuen guztia aplikatuz, abian jarri diren prebentzio- eta kontrol-neurrien gaineko informazioa ere nahiko genuke.
 - c) Irainen salaketa salatutako egitateak gertatu ziren egunetik hilabete baino gehiago igaro arte egin ez izanaren arrazoik.
 - d) Salatutako ustezko irain delituaren atestatua salaketa jarri zenetik bi hilabete baino gehiago igaro arte egin ez izanaren arrazoik.
 - e) Atestatuaren instrukzioa ireki eta urriaren 20ra arte luzatzeko arrazoik.
 - f) Kazetaritzako informazioak aipatzen zuen gaztea identifikatzeko agenteek zituzten arrazoik.



- g) Nola zehaztu zen aipatutako gazteak polizia-lana oztopatu zuela, baldin eta hori izan bazen identifikatzeko eskatzeko arrazoia.
- h) Prentsurrekoaren antolatzaileei eta kazetaritzako informazioak aipatzen zuen gazteari egindako identifikazioak dokumentatuta geratu ziren erregistroak.
- i) Kexan jasotako gaiei erantzun arrazoitua emateko interesgarritzat jotzen duen beste edozein informazio.
5. Eskaera horri erantzunez, Segurtasun Sailak Ertzaintzaren jarduketa gertatu zen inguruabarrei buruzko informazio hau eman dio Arartekoari:
- Esku-hartzearen arrazoia izan zen hogeita sei pertsona kontzentratzen ari zirela inolako jakinarazpenik egin gabe. Hasiera batean, agenteek elkarretaratzea babestu zuten, eta, amaitutakoan, sustatzailea identifikatzen saiatu ziren: «legez ezarritakoaren arabera jokatzeko».
 - Ertzainak elkarretaratzearen sustatzailea identifikatzen saiatu zirenean, beste pertsona bat hori eragozten saiatu zen *“identifikazioa eragozten; izan ere, agenteen esku hartza oztopatu zuen eta fisikoki sustatzailearen eta agenteen artean sartu zen. Halaber, agenteek identifikatutako pertsonaren nortasun agiri fisikoa ikus zezaten eragozten saiatu zen eta pertsona hori agenteengandik urrutti eramatzen saiatu zen.”*
 - Behin kontzentrazioaren sustatzailea identifikatuta, ertzainek identifikatzeko eskatu zioten haren identifikazioa eragozten saiatu zen pertsonari, hura salatzeko Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa urratzeagatik, non hauxe jaso den: *“enplegatu publiko bati bere eginkizunak bidezko eran gauzatzea eragozteagatik”*. Gainera, identifikazioaren arrazoien berri eman zioten.
 - Aipatutako pertsona dela eta: *“bost aldiz uko egin zion bere identifikazioa emateari eta agenteengandik urruntzen saiatu zen, baina azkenean agenteek pertsona hori identifikatzea lortu zuten. Horren ondoren, agenteek jakinarazi zioten Lege hori berori urratzeagatik bigarren salaketa bat irekiko ziotela, agenteek eskatuta identifikatzeari uko egiteagatik”*.

Sailak justifikatu du irainen ondorioz kazetariaren aurka bi ertzainek egindako salaketa, eta honako hau adierazi du:



“-Ondoren, agenteek egiaztatu zuten sare sozialetan jarduketa polizialaren irudiak zirkulatzen ari zirela eta horietan, baieztagatzen zen agenteek bideoan agertzen zen pertsonari euskaraz hitz egiteagatik jarri ziotela salaketa. Irudi horiek kazetariak bere twitter kontuan epigrafe honekin argitaratutako irudiak zirela egiaztatu zuten: “LARRIA: jendea identifikatzen hasita, euskeraz hitzegiteagatik identifikatu du Ertzaintzak pertsona bat”.

-Irudi horiek sare sozialetan zabaltzea eta irudi horien epigrafean agertzen den baieztapena kaltegarriak izan dira Ertzaintzako agente horien bizitza pertsonalerako eta profesionalerako, baita bizitza familiarerako ere, agenteen ondorengo batek ere arazoak izan dituelako.

-Agenteek ekintza horiengatik salatu dute (...) kazetaria, publizitatea baliatuta egindako ustezko irain-delitu bategatik. Agenteek ulertzen dute jarduketa faltsu bat egotzi dietela beren profesionaltasunari eta duintasunari kalte egiteko eta horregatik, Ertzaintzak 590A1803224 polizia-eginbideak egin zituen.”

Segurtasun Sailak gainerako gaien berri eman dio erakunde honi, gogoeten hurrengo atalean zehaztutakoaren arabera.

6. Kexagileek Arartekoari eman dioten informazioaren arabera, Segurtasun Sailak aipatutako azalpenak erakunde honi bidali ondoren, Donostiako Instrukzioko 2. zenbakiko Epaitegia-Zigor-arloko ZULUP arduratu zen irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketaren ondoriozko aurretiazko eginbideak izapidetzeaz, eta auzia behin-behinean artxibatzea erabaki zuen, salatutako delituaren zantzu nahiko ikusten ez zuelako.

Behin-behinean artxibatzeko autoan uste da ez dagoela zantzu nahikorik argitaratutako informazioa salaketa jarri duen agentea iraintzeko asmoarekin egin zela pentsatzeko, bai eta informazio bat zabaltzeko asmoa baino ez dagoela pentsatzeko ere; izan ere, informazio horri buruz zehaztu da ez dagoela zantzurik informazio hori argitalpenean jasota dagoen moduan eman dela pentsatzeko. Gaineratu da, grabazioei erreparatuta, ezin dela ziurtatu kazetaritza-informazioan aipatu zen neska euskaraz hitz egiteagatik identifikatu zenik, irudiek ez baitute erakusten haren eta hasiera batean identifikazioa eskatu zion agentearen arteko elkarritzetaren hasiera. Autoan adierazi da, halaber, Espainiako Konstituzioaren 20. artikuluak babestuko lukeela kazetaritza-informazioaren argitalpena, uste baitu



kazetariak gertatutakoaren berri ematen duela, gertatu zenaren bertsioa kontatzen duela eta gertatutakoa eskubide-urraketa gisa baloratzen duela.

Antza denez, salaketa jarri duen ertzainak apelazio-errekursoa jarri dio autoari Gipuzkoako Probintzia Auzitegian, eta oraindik ez da ebatzi.

Gogoetak

1. Arartekoak ezin du esku hartu justizia-auzitegien esku dauden gaietan, eta ezin du horiei buruzko erabakirik hartu (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikulua).

Hori dela eta, ertzain batek irainengatik astekariko kazetariaren aurka egindako salaketari buruzko kexan esku hartzeko orduan, prebentzio-mailari eutsiko dio zorrotz, bai eta kasuan aplikatu behar diren gomendioak betetzeko kontrolari ere.

2. Arartekoak bereziki azpimarratu dituen neurri horietako bat da poliziaren arduradunek ofizioz ikerketarako barneko prozedura bat abiarazteko premia, betiere, ertzainen batek behin-behinean jarduera desegokiren bat bideratu duela jakinez gero, gertatutakoa aztertzeko, jarduera hori behar bezalako bideetatik jazo ote zen egiazatzeko eta, hala badagokio, neurri egokiak, diziplina neurriak edo beste izaera batekoak hartzeko.

Arartekoak adierazi du poliziako arduradunek herritarren kexak edo salaketak kontuan izan behar dituztela, kexa horien berri modu batera edo bestera izan arren, eta kasu guztietai ikertu eta argitu beharreko lehenengo aztarnak direla, iruzurrezko adierazpenak edo sinesgaitzak ez badira behintzat.

Bestalde, erakunde honek azpimarratu du ikerketa zabaltzeak ez duela esan nahi kexari sinesgarritasun osoa ematen zaionik, ezta polizien profesionaltasuna zalantzan jartzen denik; aitzitik, funtsezko tresna da jarduera desegokiak prebenitzeko eta, halakorik balego, antzeman eta zuzentzeko.

Lehen aipatu den urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorean, "Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoan", dago Arartekoak gai horri buruz duen irizpidea (II.1.1 apartatua).

Arartekoak bere gomendioan nabarmendu duenez, ikerketaren edukiak egokia eta nahikoa izan behar duela aztertzen ari den egoera argitzeko. Halaber, agerian uzten



du gertatutakoa ezagutzen saiatzeko ahalegina egin behar dela beti eta gertaerak argitzeko baliagarriak diren arrazoizko ikerketa-aukera guztiak agortu behar direla. Arartekoaren arabera, kexan aipatutako agenteek egitateei buruzko beste bertsio bat emateak berez ez du balio beste ikerketa batzuk baztertzeko edo jardueraren egokitasunari buruzko iritzi baten oinarri gisa erabiltzeko. Era berean, kexak ikertzean, gertatutakoan parte hartu duten ertzainen lekukotasuna jasotzea ez da nahikoa izaten, beste ikerketa-jarduera batzuk egiteko ezintasuna justifikatzen ez bada; ertzainen bertsioa ezin da besterik gabe ontzat eman. Agerian jartzen du, gainera, azken bi jarraibide horiek berebiziko garrantzia izaten dutela, polizia-testatu batean edo salaketa administratibo batean jasotako bertsioaren egiazkotasuna zalantzan jartzen denean, kasu honetan gertatzen den bezala.

Gomendioan adierazi duenez, kexaren arrazoia den ertzainen jokaeraren ondorioz prozedura penala bideratzen denean, polizia agintariekin hastapeneko ikerketa bat egin behar dute, esku-hartze penalaren ondorio diren mugak kontuan hartuta, eta, arlo judizialean dagokion erabakia hartu ondoren, poliziaren portaera zorrotz aztertu behar dute, poliziaren jokabidearen balorazioarekin osatuz; balorazioa ikuspuntu zabalago batetik egin behar da, jarduketa aintzat hartu beharreko parametroen araberakoa izan ote den aztertuz. Era berean, agerian utzi da ertzainek salatutako egitateetan zigor-arloko jurisdikzioak erantzukizunik ez ikustea poliziaren esku-hartzearen desegokitasun edo gehiegikeria zantzua izan litekeela, jokaera aztertzeko orduan polizia agintariekin aintzat hartu beharko lukeena [II.1.1.b apartatua].

Arartekoaren ustez, zigor-prozedura bat gauzatzeak ez dio eragozten kasu honetan esku hartu duen prebentzio-eremuan esku hartzea, irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketari dagokionez, ezta prozedura horretatik kanpo geratzen diren kexan sortutako gaiei dagokienez ere.

3. Europako Kontseiluaren Poliziaren Europako Etika Kodeak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea bosgarrenez aldatzen duen ekainaren 27ko 7/2019 Legeak berariaz ezartzen baituen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren agintarien eta langileen jarduna (2. paragrafoa, 28. artikuluari gehitua), estatu kideei gomendatzen die ikerketa bultzatu eta sustatzea.

Ildo horretatik, aipatutako ekainaren 27ko 7/2019 Legean beren-beregi agintzen zaie administrazio publikoei kexen tratamenduaren zein ikerketaren protokoloa egiteko, baina ustezko jardunbide txarren kasu garrantzitsuetara mugatuta (6. artikuluaren testu berria).



4. Segurtasun Sailak kexaren inguruan egindako ikerketaren berri eman dio Arartekoari, eta hauxe adierazi dio:

"Barruko ikerketa-prozedura bat egin zen polizia-jarduketa modu egokian burutu zen egiazatzeko eta, hala bazegokion, neurri zuzentzaile egokiak hartzeko. Horri buruz, esan behar dugu egitateak aztertu eta baloratu ondoren, eta kasuaren ingurabar zehatzak kontuan hartuta, Ertzaintzako agenteek jarduketa horretan behar bezala eta modu egokian jardun zutela eta ordenamendu juridikoa zein barruko kontrol-arauak eta kode etikoa zorrotz bete zituztela".

Sailak ez dio erakunde honi ikerketari buruzko informazio gehiago eman, ez eta kexaren xede den polizia-jarduera zuzena izan zela ondorioztatzeko kontuan hartu dituen judizio-elementuei buruzko informazio gehiago ere.

Era berean, ez du ikerketaren edukiari buruzko informaziorik eman, ez eta haren baitan egindako ikerketa-jarduketei buruzko informaziorik ere, erakunde honek berariaz eskatu zituenak, adierazi den bezala.

Informaziorik eza ez da justifikatu eta, erakunde honen iritziz, ez dago justifikatzerik, eta horren ondorioz Arartekoak ulertu behar du sailak ez duela kexa ikertu urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean jasotako gidalerrokin bat (II.1.1 apartatua), eta berriro adierazi behar dio Segurtasun Sailari hori egin beharra duela.

Ikerketan, polizia-arduradunek kontuan hartu beharko dituzte zigor-arloko jurisdikzioan irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketaren inguruan hartutako erabakiak, gomendioan adierazi den bezala.

Egindako ikerketari buruzko aurreko ondorioa dela eta, era berean, erakunde honek berriz azaldu behar du lehen eman duen gomendioa eta hura betetzea bermatzeko behar diren mekanismo egokiak –besteak beste, arlo horretan jardun-protokolo argi eta zehatzak– eratzeko beharra.

5. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean Arartekoak azpimarratu du beharrezkoa dela polizia agintariekin atestatuak eta salaketa administratiboak kontrolatzea, agiri horietan jasota dauden egitateek gertatutakoa zehatz adierazten dutela bermatzeko. Era berean, agerian utzi du mekanismoak ezarri behar direla



arlo horretako gehiegikeriak saihesteko eta, gertatzen direnean, antzemateko (II.2.3. apartatua).

Gomendioan azpimarratu da mekanismo hori eta helburu horrekin ezar daitezkeen beste batzuk funtsezkoak direla aipatutako gehiegikeriak saihesteko; horien artean, "kontra-salaketa" deritzon hori dago, hau da, ertzainek beren esku-hartzeak kexa edo salaketa bat eragin dezakeela uste duenean, aldi berean, pertsona horren aurkako salaketa jartzea.

Arartekoari iritziz, kexak horrelako gaitzespen bat zuen azpian. Hori dela eta, Segurtasun Sailari eskatu zion azter zezala hura eragin zuen polizia-jarduera ikuspegi horretatik eta egin zuen azterketaren berri eman ziezaiola, bai eta gomendioa betetzen zela bermatzeko baliatu zituen mekanismoen berri ere.

Eskaera horri erantzuteko asmoz, honako hau jakinarazi du sailak: "*salaketa administratiboak Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa urratzeagatik jarri zirela eta horietan, gertatutakoren berri zintzoa ematen dela.*"

Irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketari dagokionez, sailak honako hau adierazi du:

"Agenteek aurkeztutako salaketari buruz esan behar da agenteak pertsona baten aurka egoki deritzeten legezko ekintzez baliatzeko gaituta daudela, baldin eta agenteek ulertzen badute pertsona horrek haien ohorea eta intimitate pertsonala edo familiarra kaltetu dituela. Ertzaintzak interesdunen salaketa guztiak, funtsik gabekoak izan ezik, jasotzeko eta ikertzeko betebeharra dauka, eta hori da oraingo kasua. Izan ere, Konstituzioaren 20. artikuluak informazio-askatasuna ezartzen badu ere, askatasun horrek ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideekin talka egin dezake. Gainera, Konstituzioaren manu horrek exijitzen du informazioa egiazkoa izatea eta hori oraingo kasuan zalantzazkoa da."

Arartekoak uste du aipatutako informazioak ez diela galdetutako gaiei erantzuten; izan ere, adierazi du egin ziren salaketa administratiboetan zehatz-mehatz jaso zela gertatutakoa, eta eskatu du agenteek beren defentsarako egoki iritzitako legezko ekintzak gauzatzeko eskubidea izateko, bai eta Ertzaintzak salaketa horiek bideratzeko betebeharra izateko ere. Alabaina, ez da ezer adierazi, hala badagokio, zigor-arloko salaketari eta administrazio-salaketei buruz aipatutako ikuspegitik





egindako azterketari buruz. Erakunde honek, berriz ere, horri buruz hitz egin zuen lankidetza-eskaeran.

Justifikatu ez den informaziorik eza (erakunde honen iritziz, justifikatu ezin daitekeena) dela eta, Arartekoak ulertu behar du Segurtasun Sailak kasu honetan ere ez duela bete gai horren inguruko gomendioa eta ez duela ezarri betetzea bermatzeko mekanismorik.

Informazio ezak, halaber, Arartekoak behartzen du aipatutako mekanismoak ezartzeko gomendioa eta beharra errepikatzen, eta berriro esatera sailak aipatutako salaketak aztertu behar dituela salatutako egitateak gertatutakoaren errealitatera egokitu ziren egiaztatzeko, eta horrek, aurrerago arrazoituko den bezala, zalantza handiak sortzen dizkio erakunde honi, dituen datuak kontuan hartuta.

Segurtasun Sailak irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketari buruz eman dituen azalpenak ikusita, zehaztu behar da, bestalde, kexan ez dela zalantzan jartzen Ertzaintzako kideek beren pertsonekin zerikusia duten arau-hauste penalak salatu ditzaketenik, ezta Ertzaintzak salaketa horiek jaso eta iker ditzakeenik ere.

Berriz ere, zalantzan jartzen dena da salatutako egitateak bat datozena gertatutakoaren errealitatearekin.

6. Kexarekin batera emandako bideo-grabazioak bat datozena, antza denez, kazetariak zabaldu zituenekin eta irainengatik haren aurka egindako salaketaren ondorioz izapideutako atestatuau sartu zirenekin, baina ez datozena Segurtasun Sailak erakunde honi eman dion informazioarekin, hau da, kazetaritza-informazioak aipatzen zuen gazteari haren identifikazioa eskatzeko eta salaketa jartzeko arrazoiekin eta identifikazioaren arrazoien inguruan emandako informazioarekin.

Aurrekarietan adierazi den bezala, sailak adierazi du gaztea saiatu egin zela prentsurrekoan antolatu zuen pertsona identifikatzea eragozten, agenteen eskuhartzea oztopatuz, eta oztopatzea zehaztu du honako ekintza hauetan: fisikoki jarri zen ustez antolatzailea zen pertsonaren eta agenteen artean, agenteek haren NANa eskuratzea saihesten saiatu zen eta agenteen irismenetik kanpo eraman nahi izan zuen.

Gainera, adierazi du agenteek gazteari jakinarazi ziotela identifikatu egiten zutela beren eginkizunak oztopatzeagatik eta identifikatzeari uko egiteagatik.



Aipatutako bideo-grabazioek, ordea, ez dute gertakarien kontakizun hori berresten. Aurrekarietan adierazi den bezala, irudiek ez dute erakusten gazteak polizia-lana oztopatu zuenik, ez eta Segurtasun Sailak buxadura eragin duten jarduketak egin zituenik ere.

Bideo-grabazioen arabera, hasiera batean gazteari identifikazioa eskatu zion agenteak eskatzeko arrazoiei buruz eman zuen informazio bakarra izan zen norekin hitz egiten ari zen jakin nahi zuela, eta hori ez dator bat, era berean, aipatutako sailak erakunde honi horren inguruan eman dion informazioarekin eta agenteak irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketan eman zuen kontakizunarekin.

Bideo-grabazioen arabera, bigarren agenteak ez zion gazteari identifikazio-eskaeraren arrazoiei buruzko informaziorik eman.

Erakunde honen iritziz, gainera, oso zalantzazkoa da bideo-grabazioetan agertzen den gaztearen jarduna identifikatzeari uko egitea, baldin eta bere burua identifikatzeko borondatea kontuan hartzen bada; izan ere, horrek agerian uzten ditu aurrekarietan deskribatutako adierazpenak eta egin zituen keinuak, bai eta identifikatza ere.

Segurtasun Sailak erakunde honi eman dion informazioan ez dira baloratzen bideo-grabazioak, eta ez da justifikatzen baloraziorik eza.

Arartekoak ez daki sailak beste daturik duen irudiek erakusten duten gertakarien bertsioaren aurka egiteko eta erakunde honi eskaini zaiona bermatzeko, ez baitu ezer adierazi horri buruz.

Edonola ere, erakunde honen iritziz, ezinbestekoa da sail horrek bideo-grabazioak baloratzea, bai kexaren ikerketan, bai egiten duen azterketan, kazetariaren aurka eta zabaldu zuen informazioak aipatzen zuen gaztearen aurka egindako salaketetan jasotako egitateak errealtatera egokitzen diren ala ez kontuan hartuta, hargatik eragotzi gabe beste datu edo frog-a-elementu batzuk ere baloratu ahal izatea, hala balegokio.

Bestalde, Segurtasun Sailak argitu behar du zertan oinarritu ziren agenteak salatutako gertaerak deskribatzeko.



Arartekoak berriz ere azpimarratu behar du arlo horretan egon daitezkeen gehiegikeriak gehienetan ez direla besterik gabe ikusten, legezkoak diren polizia-jardueren itxurapean estalita egoten direla baizik; ondorioz, zailagoa izaten da halakoak antzematea eta frogatzea.

Arazo horretaz, hain zuzen ere, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean (II.2.3. apartatua) ohartarazi zuen erakunde honek bere gomendioan, hortaz, konturarazi behar ditu polizia agintariak arlo horretan gehiegikeriak egon daitezkeela, halakoak prebenitu eta antzemateko lehen urratsa egiteko.

Arartekoaren iritziz, Segurtasun Sailak kexaren alderdi horri buruz eman duen informazioak erakusten du oraindik kontzientzia falta dagoela.

7. Segurtasun Sailak jakinarazi du zein diren arrazoiak irainengatik kazetariaren aurkako salaketa jartzeko orduan hilabete eta erdi igaro izana salatutako egitateak gertatu zirenetik, eta hauxe adierazi du:

“Salatutako pertsonaren portaera geroago hasi zen agenteen gainean eragina izaten, irudiak sare sozialetan zabaltzen joan ahala.

Agentek denbora hartu zuten ekintza horien aurrean erabil zitzaketen lege-ekintzei buruzko aholkularitza jasotzeko.

Ustez zigorgarria den jokabide batek bi agente zehatzen gainean eragina izan duenez, bi horiek, biktimak diren aldetik, erabaki dezakete salaketa noiz eta non aurkeztu. Kasu honetan 2018/07/07an aurkeztu zuten Donostiako Ertzainetxeen.”

Erakunde hau bat dator Segurtasun Sailarekin, ertzainen askatasun pertsonalaren esparruan sartzen baita haiei eragiten dien salaketa noiz egin erabakitzea.

Argitu behar da, hala ere, Arartekoak alderdi horri buruzko interesa agertu zuela eta ulertu zuela salaketa berandu aurkezteak zantzu bat ekar zezakeela, hau da, agenteek beren jarduna zuzentzea zalantzhan jartzen zuen bideo-grabazio baten hedapenari eman zioten erantzuna, eta horrek urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorraren II.2.3 apartatuaren esparruan kokatuko luke jarduteko modu hori, lehen aipatu den bezala.



Horregatik, uste dugu Segurtasun Sailak atal horretan adierazitako ikuspegitik ere aztertu beharko lukeela agenteen jarduketaren alderdi hori, adierazitakoa bezalako gehiegikeriak baztertzeko.

8. Segurtasun Sailak erakunde honi jakinarazi dionez, 2018ko uztailaren 7an ireki zen irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketaren ondorioz izapideutako atestatua, salaketa egin zenean, eta ez irailaren 25ean, horixe baita dokumentu horretan jaso den irekiera-data.

Honela azaldu du sailak: *"Atestatuaren irekiera-eginbidearen datak gaizki-ulertua eragin diezaioke Ertzaintzaren programa informatikoa ezagutzen ez duenari. Izen ere, eginbide horretan eginbidea modu efektiboan formalizatzen den data agertzen da, baina horrek ez du esan nahi hori dela atestatua ireki deneko data. Atestatua irekitzeko eginbidea izapidezko eginbidea da, instrukzioaren edozein unetan egiten dena eta ez da nahitaezkoa formalizatzea atestatuarri hasiera emateko."*

Arartekoak uste du aipatutako azalpenek ezin dutela justifikatu atestatuan benetako irekiera-data ez agertzea, ez eta bertan jaso dena benetako irekiera-data ez izatea ere.

Behin eta berriz adierazi den bezala, polizia-erregistroen eta atestatua osatzen duten dokumentuen edukiak ahalik eta leialtasun eta zehaztasun handienarekin islatu behar du bertan jasota uzten diren jarduketak nola garatu diren eta haien denbora-sekuentzia.

Irekiera-eginbideak atestatuarri hasiera ematen dio, eta, beraz, irekiera-unean bertan egin beharko litzateke, eta hori ere formalizatu egin beharko litzateke.

Emandako azalpenak ikusita, Arartekoak azpimarratu behar du dokumentatzen diren jarduketak eta dokumentu-erregistroa guztiz bat datozen bermatu behar dela, bai eta esparru horretan gerta daitezkeen disfuntzioak ezagutu eta zuzentzeko mekanismoak ezartzeko beharra ere.

Nolanahi ere, erakunde honek uste du Segurtasun Sailak aztertu beharko lukeela ea irailaren 25ean atestatua irekitzeko eginbidea formalizatzeak, uztailaren 7an formalizatu beharrean —emandako informazioaren arabera, jarduketa hori gauzatu zen eguna baita—, garrantzirik duen kexaren ikuspuntutik.





9. Segurtasun Sailak jakinarazi du zein diren atestatuaren instrukzioa urriaren 20ra arte luzatzeko arrazoik, eta hauxe adierazi du: *"irudien grabazioetara sartu eta gero epaitegietara bidatzeko, ikerketa-kudeaketa batzuk egin behar izan zirela"*.

Sailak, ordea, ez ditu zehaztu aipatutako kudeaketak, eta horiek, kexarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren arabera, ez daude jasota atestatuan.

Bestelako azalpenik ezean, Segurtasun Sailak ez baitu eman, ez dirudi, ordea, zabaldutako bideo-grabazioak eskuratzeak justifikatuko zuenik instrukzioa uztailaren 7tik urriaren 20ra luzatzea; izan ere, kexarekin batera emandako informazioaren arabera, urriaren 20an dokumentatu zen atestatuan, Facebook eta Twitterrako esteka banaren bidez, eta CD bat aurkeztuta.

Horregatik, erakunde honek uste du aipatutako sailak aztertu beharko lukeela, halaber, kexaren ikuspuntutik jokabide horrek garrantzirik duen.

10. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean, Arartekoak nabarmendu du polizia jarduera arautzen duten arauek maiz hautazko tarte zabala ematen dietela polizia funtzionarioei eta azpimarratu du hautazko tarte horrek ezin duela inola ere ahalbidetu esku-hartze arbitrriorik edo oinarririk gabekorik (II. apartatua).

Era berean, gomendioan nabarmendu da eskubideak mugatzen dituen edozein polizia-jardueraren arrazoia behar bezala dokumentatu behar dela eta eragin duten arrazoi zehatzak behar beste azaldu behar direla. Adierazi nahi da, halaber, gomendio honek garrantzi osoa duela poliziaren bulegoetatik kanpo egiten diren esku-hartzeak direnean, horiei buruzko informazio iturri gutxiago baitago, bide publikoan egiten diren identifikazio-eginbideen kasuan gertatzen den bezala (II.1.3 apartatua).

Aurreko kasu batzuetan agerian utzi denez, arrazoik azaltzeak bermatzen du administrazioak arbitrariotasunik gabe jokatu duela eta jarduera behar bezala kontrolatzea ahalbidetzen du.

Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du horren inguruan: *"El deber de la Administración de motivar sus decisiones es consecuencia de los principios de seguridad jurídica y de interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos, que se garantizan en el artículo 9.3 de la Constitución; y puede considerarse como una exigencia constitucional que se deriva del artículo 103, al consagrarse el principio de legalidad de la actuación administrativa"* (5190/2010 epaia, urriaren 15ekoan,



seigarren Zuzenbideko Oinarriak, eta 2486/2011, maiatzaren 3koa, bigarren Zuzenbideko oinarria, maiatzaren 23ko 3275/2005 epaian azaldutako doktrina erreproduzitzen dutenak).

Aipatutako epaietan, auzitegiak haxe ere adierazi du: "*El deber de motivación de las Administraciones Públicas se engarza en el derecho de los ciudadanos a una buena Administración, que es consustancial a las tradiciones constitucionales comunes de los Estados Miembros de la Unión Europea, que ha logrado su refrendo normativo como derecho fundamental en el artículo 41 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea, proclamada por el Consejo de Niza de 8/10 de diciembre de 2000*".

Bestalde, Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenak arrazoitzearen garrantzia azpimarratu du eta haxe adierazi du: "*El poder administrativo de un Estado de Derecho es siempre, y más todavía el poder discrecional, un poder obligado a dar cuenta de su efectivo servicio a la función para la que fue creado, a justificarse en su ejercicio y a justificar también su conformidad a la Ley y al Derecho, a los que está expresa y plenamente sometido por la Norma Fundamental y en esta línea, «la motivación de la decisión comienza, pues, por marcar la diferencia entre lo discrecional y lo arbitrario y ello porque, si no hay motivación que la sostenga, el único apoyo de la decisión será la sola e insuficiente voluntad del órgano competente»*" (552/2000 Epaia, apirilaren 24koa, Administrazioarekiko Auzien Sala, Granada, Atal Bakarra, zuzenbideko oinarietatik laugarrena).

Ondorioz, Segurtasun Sailari dagokio kexagileak kexaren arrazoia den ertzainen jokaeraren zuzentasunari buruz adierazi dituen zalantzak argitzea eta azaltzea, zertan oinarritu zen jokaera hori zuzena izan zela esateko, eztabaidergarriak diren alderdiak aintzat hartuta. Azaldu diren arrazoiengatik, erakunde honek uste du ez duela horrelakorik egin.

11. "Polizia-jarduerak atzerriko jatorriko pertsonekin San Frantzisko inguruan" [8. gomendio espezifiko, b) atala] txostenetik abiatuta, Arartekoak askotan ohartarazi du polizia-agenteek hasieran bide publikoan pertsona bati zuzentzen dioten moduak, oro har, gertakarien ondorengo garapenean duen eragina.

Era berean, adierazi du pertsona batek euskaraz hitz egiteko eskubidea baliatzen duenean hizkuntza ezagutzen ez duen ertzain baten aurrean, ertzain horrek egiaztatu behar duela ea kide den agenteen taldean eskubide hori berma dezakeen





beste ertzainik dagoen, eta arau hori presazko kasuetan edo berehalako esku-hartzea behar denean bakarrik laga dezakeela.

Kexaren kasuan, ordea, ez dirudi adierazitako jarraibideak bete zirenik, baldin eta, erakunde honi eman zaizkion datuen arabera, kazetaritza-informazioan aipatu zen gazteari euskaraz identifikatzeko eskatu zion agenteak hizkuntza horretan eskatu ahal izan bazion, eta horrek, bere hizkuntza-eskubideak errespetatzeaz gain, egoera modu horretan garatzen joatea saihestu izan balu.

Arartekoak, horregatik, bi jarraibide horiek azpimarratu behar ditu, eta horiek beteko direla bermatzeko mekanismoak ezartzeko beharra nabarmendu.

12. Euskal administrazio publikoen legezko betebeharra da Arartekoak eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide oro lehentasunez eta premiaz ematea, Arartekoak bere egitekoak bete ahal izateko. Eskatutako informazioa ez ematea gure lanari oztopoak jartzea dela dio legeak. Legez oztopotzat jotzen da ere, hartzen da eskatutako informaziorako sarbidea zaitzen duen jarduera oro (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23 eta 24 art.).

Arartekoak uste du Segurtasun Sailak ez duela kasu honetan aipatutako legezko betebehar hori ondo bete. Aurretik adierazi denez, ez die erantzun erakunde honek egindako hainbat galderari, ezta interesdunak bere kexan azaldutako zalantzei ere. Gainera, ez du bere jokabidea justifikatu, eta erakunde honen ustez, justifikatzerik ez dago.

Sailak ere ez dizkio erakunde honi bidali egindako identifikazioak dokumentatuta geratu ziren erregistroak, zeinak eskatu baitzizkion, eta ez du justifikatu jarduteko modu hori.

Horri dagokionez, hauxe baino ez du adierazi: "*barruko baseetan identifikazio horiek idatziz jasota daudela*", eta horrela, erakunde honi aztertu beharreko jarduera baloratu ahal izateko funtsezko judizio-elementu bat kendu zaio.

Azalpenik jaso ez duenez, Arartekoak ez du ulertzten Segurtasun Sailak zergatik ez duen bete dagokion lege-betebeharra, erakunde honek eskatutako dokumentuak eta informazioa ematekooa.

Beste batzuetan adierazi izan dugunez, Arartekoaren eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun osatugabeak ematea oztopo handia dira





legez esleitutako eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, eta asko murritzten dituzte erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak —ordenamendu juridikoak herritarrek beren interesak defenda ditzaten ezarritako tresnetako bat da Ararteko—.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendio hau egiten diogu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzeakoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Kexaren arrazoia den polizia-jarduna iker dezala Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean (II.1.1 apartatua) jasotako gidalerroei jarraituz.
2. Ikerketan kontuan har ditzala, halaber, zigor-arloko jurisdikzioan irainengatik kazetariaren aurka egindako salaketari buruz hartutako erabakiak, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean adierazitakoaren arabera (II.1.1 apartatua).
3. Azter ditzala irain delitu batengatik kazetariaren aurka aurkeztutako salaketa eta kexan aipatzen diren ertzainek kazetaritza-informazioa aipatzen zuen gaztearen aurka egindako salaketa administratiboak dokumentu horietan jasota dauden egitateak benetan gertatutakoarekin bat datozen egiaztatzeko; horretarako, kontuan har dezala Arartekoak urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorean horri buruz adierazitakoa (II.2.3 atala).
4. Azaldu ditzala kexagilearen zalantzak, ertzainen jokaeraren zuzentasunari buruz.
5. Har ditzala behar diren neurriak Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra betetzea bermatzeko, kexan azaldutako kontuei dagokienez, bai eta gogoetean aipatu diren gainerako jarduketa-jarraibideak ere.

